

Talentua unibertsitatetik enpresetara Transferitzeko Plana

**MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ESKUTIK,
EROSKI-K EKOSISTEMA BAT BULTZATU DU
TALENTUA ETA BARNEKO EKINTZAILETZA
GARATZEKO**

- **MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta EROSKI k hitzarmen bat sinatu dute talentua erakarri eta garatzeko**
- **Horren bidez, lankidetzeta-esparru bat finkatu da, enpresa-kudeaketako metodologia berriak ezartzeko, ezagutza teknikoak transferitzeko eta etengabeko prestakuntza eskaintzeko**
- **EROSKI k ziklo estrategiko berriari helduko dio arreta lehiakortasunean ipinita, eta ardatz nagusietako bat lantaldeen gaitasunak indartzea izango da**
- **MONDRAGON UNIBERTSITATEAK enpresetako profesionalen prestakuntzaren eta garapenaren alde egiten du**

Oñati, 2017ko uztailaren 14a.- [EROSKI](#) k eta [MONDRAGON UNIBERTSITATEAK \(MU\)](#) lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute profesional berriak EROSKIra sartzeko eta bi erakundeen artean talentua transferitzeko; horretarako, etengabeko prestakuntzako programak egingo dituzte, berrikuntza metodologikoak txertatuko dira enpresa-kudeaketan, ezagutza teorikoa transferituko da, eta EROSKI n ekosistema bat sortuko da barneko ekintzailletza-proiektu berrietarako. Lankidetzeko esparru-hitzarmen hori gaur goizean sinatu dute MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektoreak, Vicente Atxak, eta EROSKIko presidentek, Agustín Markaidek.

Hitzarmen horren bitartez, EROSKI k barneko ekintzailletza-programa bat bultzatu nahi du, hurrengo urteetarako zehaztu den lehiakortasunerako strategiak oinarri izango dituen berrikuntza-proiektuak sortzeko. Hori lortze aldera, EROSKI k eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK talentua unibertsitatetik enpresetara Transferitzeko Planari helduko diote, honako gai hauetan: berrikuntza-proiektuen kudeaketa, *design thinking* metodologiak, berrikuntza irekiko *open innovation* plataformak...

Beren kultura kooperatiboarekin bat etorriz, EROSKI eta MONDRAGON UNIBERTSITATEA elkarrekin arituko dira Bezero Bazkideek parte hartzeko bide berriak diseinatzen, Zurekin belaunaldi berriko dendetan ematen den arreta hobetzeko. Gainera, unibertsitate ete enpresetako lantalde dualen bidez, hainbat berrikuntza-proiektutan jardungo dute. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira datozen hilabeteetarako: merkataritza elektronikoa, lotutako produktuak gomendatzeko eta iradokitze sistemak, freskotasun ezin handiagoa frutaren eta ortuarien atalean, eta berrikuntza operatiboak dendetako ordainleketan.

Horrezaz gain, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, hitzarmenaren bitartez, Summa programako bazkide bihurtu da; EROSKI k berrikuntza-motor moduan darabil programa hori egun, eta horren barruan, prestakuntza ematen zaie zuzendari berriei.

"Aliantza natural bat da izaera kooperatiboa duten bi erakunderen artean, eta elkarlanean aritzeko esparru berria finkatu du lehiakortasuneko abantailak eratu



daitezen, bi erakundeetako pertsoneri gaitasunak ematea eta garapen integrala izatea oinarri hartuta", nabarmendu du EROSKIko presidentek, Agustín Markaidek.

2020. urtera begirako Plan Estrategikoaren hiru zutabeetako bat EROSKIko lantaldeen bilakaera profesionala eta pertsonala indartzea da, eta pertsonen prestakuntza bihurtzen du lehiakortasuna hobetzeko gakoetako bat. Aurreko ekitaldian, adibidez, EROSKIk % 20 handitu zuen barne-prestakuntzako ordurakopurua, eta 210.000 ordutik gora eskaini zituen. "Teknologia berriak banaketaren balio-kateko zenbait alderdi eraldatzen ari dira, eta lehiakortasuneko abantailak eratzea erronka izaten ari da enpresentzat; izan ere, sarritan, erronka horrek enpresen mugak gainditzen ditu, eta beharrezkoa gertatzen zaie barneko ezagutza eta kanpokoa konbinatzea", azaldu du Markaidek.

Bestalde, MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektore Vicente Atxak nabarmendu duenez, "enpresek behar dituzten profil profesionalak eraldaketa-prozesu bete-betean daude, sektore guztietan gertatzen ari den azelerazio teknologikoaren ondorioz. Hitzarmen honen bitartez, gure unibertsitateak EROSKIren kolaboratzaile estrategiko izan nahi du, eta hartara, talentua erakarri eta garatzeko estrategiak abiatu erakunde horrek bere helburu estrategikoak bete ditzan. Horrekin batera, eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ekintzailatza-, berrikuntza- eta lidergo-programak garatzen duen eskarmentua oinarri, lagundu nahi dugu EROSKI barneko ekintzailatzako ekosistema bihur dadin".

MONDRAGON UNIBERTSITATEAri buruz

MONDRAGON UNIBERTSITATEA gizarte-ekimen eta -bokazioko unibertsitate bat da, irabazi-asmorik gabekoa eta onura publikokoa, eta MONDRAGON Korporazioaren barruan dago. Lau fakultatek osatzen dute: Enpresagintza, Goi Eskola Politeknikoa, Humanitate eta Hezkuntza Zientziak, eta Gastronomia Zientziak (Basque Culinary Center). Unibertsitateko prestakuntza eta profesionalentzako etengabeko prestakuntza ematen ditu, eta ikerketa-, garapen- eta transferentzia-lanetan ere badihardu. Haren misioa honako hau da: "Gizartea eraldatzea, pertsoneri prestakuntza integrala emanaz eta ezagutza sortu eta transferituz".

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa-taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. Haren merkataritza-sarea 1.837 establezimenduk osatzen dute, supermerkatuak, hipermerkatuak eta negozio dibertsifikatuetakoko beste denda batzuk kontuan hartuta. Zazpi milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.162 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide.

Hurrengo lau urteetarako plan estrategiko berria ari da lantzen. Zenbait lehentasun jarri ditu helburu gisa: bere merkatuetan lehiatzea, Bezero Bazkidea estrategiaren erdigunean jartzea eta bere pertsonaltaldean gaitasunak indartzea.

Informazioa:

EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernandez, Tel.: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prentsa bulegoa – Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Eurne Izquierdo Tel.: 944 158 642	Mondragon Unibertsitatea Xusane de Miguel Ortiz VK Comunicación Tel.: 944 015 306 / 629 753 336 xusane@vkcomunicacion.com
---	---